

Dbizi Bonopark-ek eskaintzen duen Donostiako bizikleta elektriko sistema publikoak eraso larriak jasaten ari da; ez da lehenengo aldia, baina bai larriena. Zerbitzua orokorrean ona zen, baina azken hilabeteetan arazo larriak ditu akats, lapurreta eta erasoen ondorioz.

Ez da Bonopark enpresak arazoak dituen leku bakarra, Donostiakoaren ondoren, Madrilen lortutako kontratuan ere arazo oso larriak izaten ari da hasieratik. Lehena, bere [sistemen hackeatzea](#) lortu zuten. Erasoan, bideo porno bat jartzea lortu zuten erasotzaileek. Sinatutako kontratua ez betetzea egotzi diote, horregatik Madrileko udalak [kontratua ez betetzeagatik, enpresa zigortuko duela](#) adierazi du.

Donostiakoa aldiz, kale erasoen eta lapurreten ondorio zuzena da. Enpresak webguneko eta sare sozialetako komunikazio zuzena eten badu ere, ofizinakoekin hitz egin ondoren, eta [jendeak sare sozialen bidez](#) esandakoagatik badirudi Antiguoko gazte talde batek, lortu duela bizikletak posteetatik askatzeko teknika bat. Horren ondorioz, bizikleta asko eta totem batzuk apurtuak daude erasoengatik. Ezagutza hori orain hirian zehar hedatzen ari da eta arazo orokor batean bilakatu da enpresa, udal eta erabiltzaileentzat.

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)